

C DOKUMENTUA

# EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA

ZALDIBIAko HAPOaren URTESABEL-AZPI 2.sektoreko PLAN PARTZIALA

HASIERAKO ONARPENA



## C DOKUMENTUA EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA

---

1. JARDUERAREN KOMENIGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA
2. JABEEN ZERRENDA.
3. GARATZEKO ETA JARDUTEKO ERREGIMENA.

## 1. JARDUERAREN KOMENIGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA.

Plan Partzial honen helburua da Zaldibiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumnetuan URTESEBEL-AZPI 2. sektorerako ezarritako zehaztapenak garatzea, Zaldibiako udalerrian.

Jarduketa lurzoru urbanizagarriko sektore gisa definitzen da.

Plan Partzialaren eremuaren antolamendu orokorra, egungo eraikinek eta eraikin horiek osatzen duten egiturak, bideen trazadurak eta eremuaren eta Zaldibia ibaiaren arteko mugakideak baldintzatzen dute,

Horrela, memoriaren 2.3 epigrafean ezartzen den bezala, **iraunkortasunaren eta baliabideen aprobeixamenduaren ikuspegitik, eremua berrantolatzea erabaki da, lehendik dauden partzelak eta eraikinak finkatuz, eta espazio librean eta zuzkidura-eremuen beharrezko babesak eta lagapenak ezarriz, horrela ibaiaren trazadura babestuz.**

Horrela, partzela pribatizagarriak egungo forman eta eraikigarritasunean finkatzen dira.

## 2. JABEEN ZERRENDIA.

- **GANBO S.A.**, Elbarrena auzoko 2. zenbakian dagoen lursail eta pabiloiaren jabea. 1.771 zenbakiko erregistro-finka da, eta katastroko erreferentzia 6966015D da.

- **Dñ. María Felicitas Tolosa Artano** andrea, Elbarrena auzoko 3. zenbakian dagoen pabiloiko BAT lokalaren jabea, 1.882 erregistro-finka osatzen duena. Katastroko erreferentzia 6966038 da.

- **Javier Estanga Iriarte eta María Isabel Urcola Beloqui**, Elbarrena auzoko 3. zenbakian dagoen pabiloiko BI lokalaren jabeak. Lokal hori 1.886 erregistro-finka da, eta katastroko erreferentzia 6966038 da.

- **Promociones Suatxipi S.L.**, Elbarrena auzoko 3. zenbakian dagoen pabiloiko HIRU lokalaren jabea. Lokal hori 1.872 erregistro-finka da, eta katastroko erreferentzia 6966038 da.

- **Maria Pilar Alviz Criado, Maria Pilar Sánchez Alviz eta Javier Sánchez Alviz**, Elbarrena auzoko 3. zenbakian dagoen pabiloiko LAU lokalaren jabeak. Lokal hori 1.872 erregistro-finka da, eta 6966038 katastroko-erreferentzia du.

- **GOIERRIKO EKIMENA S.A.**, Elbarrena auzoko 5. zenbakiko lursailaren eta pabiloiaren 2 zenbakiko lokalaren jabea. Lokal horrek 2.113 erregistro-finka osatzen du, eta katastroko erreferentzia 6966009 da.

- **JAZKI 18, S.COOP**, Elbarrena auzoko 5. zenbakiko pabiloiko 3. zenbakiko lokalaren jabea. Lokal horrek 2.114 erregistro-finka osatzen du, eta katastroko erreferentzia 6966009 da.

- **ZALDIBIAKO UDALA**, Elbarrena auzoko 5. zenbakian dagoen lokalaren jabea.

- **BIRZIKLAPENAK BENTA-BERRI RECICLAJES S.L.**, Elbarrena auzoko 7. zenbakiko lursail eta pabiloiaren jabea. Finka horrek 1491 eta 1280 zenbakiko erregistro-finkak osatzen ditu, eta 6966018 da katastroko erreferentzia.

ZALDIBIAKO URTESABEL AZPI 2. SEKTOREA.  
PLAN PARTZIALA

HASIERAKO ONARPENA

- **GOENAGA S.A.**, Elbarrena auzoko 9. zenbakiko lursail eta pabiloiaren jabea. Finka horrek 1373 eta 1.543 zenbakiko erregistro-finkak osatzen ditu, eta horien katastro-erreferentziak 6966017 eta 6966018 dira.

### 3. GARATZEKO ETA JARDUTEKO ERREGIMENA.

Plan Partzialak lehendik dagoen antolamendua aitortu eta sendotzen du, eta, aldi berean, eraikigarritasuna eta hari eusten dioten lurzatiak finkatzen ditu; era berean, zuzkidura publikoak gaur egun izaera publikoa duten lurretan kokatzen dira.

Bestalde, eremuaren urbanizazio-maila nahikoa da ezarritako eraikigarritasunaren zerbitzurako.

Urbanizazio-proiektu bakarra egingo da, ekimen publikoz. Urbanizazio-eremu osoa hartuko du, OR.09 URBANIZAZIO-EREMUA PLANOAN zehaztutako eremurako. Bertan, ibai-ertzeko espazio libreak lehengoratzeko eta mantentzeko obrak eta bide-zatian beharrezkoak diren erremateak eta pintaketak egingo dira.

2023ko abendua

Amaia Albeniz Goikoetxea  
Ainhoa Guerras Alfonso  
**Hiri.Dunak estudioa**